

BRA-031 Hizlari ezezaguna
Bera, Nafarroa

Aurkibidea

Biografia

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Beran jasotako lekukotza anonimoak.

Zintak

BRA-031

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 2000-01-01
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Audio digitala

Pasarteak

1. Labeak

- **Erref:** BRA-031/001

- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bueno, eta... etxearen inguruan eta horrela, e... etxe guztietan izaten zen labea, ez?

- Labea etxe guztietan, denetan...

- Eta nolakoa zen, eta zer egiten zenuten eta...?

- Labea izaten zen buztinarekin egina, izaten zen teila puskekin eta buztinarekin egina, holako redondo bat, izaten zuen harek, zenbatsu izanen zuen? Ochenta? Ochenta, altura ochenta hola? Gehixeago? Ba! Hola-hola. Eta izaten zen redondua, hura buztinarekin egina izaten zen. Buztin zuriarekin. Buztina badira bi klase: bata horia eta bertzea zuria. Eta zuri hura da gogorragoa, hor... eransten da gehiago. Eta egiten zuten teila puskekin eta adreilu puskekin eta egiten zuten. Zola adreiluekin, eta gero harekin gainetik. Eta gero, ahoa, ate txiki bat izaten zuen, eta gero sua egin han, sua, ez dakit zenbat, hori zuritu arte erraten zuten, ez dakit, barrena zuritu arte. Ez dakit nola izaten zen hura. Eta gero, sua akabatzen zenean, bueno, akabatzen, bi bazterretara bota gero, ja erretzen zenean egurra, erretzen zenean, alde guztietara bota. Eta orduan garbi-garbi egin, eskoba gisako bat pasatu. Eskoba izaten zen belarrarekin egina, berderekin. Klaro, idorrarekin egiten zenean, egiten zen sua hartu...

- Erre.

- Eta, egiten zen berderekin, eta berderekin alde guztietara bota, eta, artoa edo ogia, arto jeneralean... ogia, hala-hala sartzen zen. Artoa izaten zen ogiaren forman egiten zutena, arto irinarekin.

- Eta, izaten zenuten maindire artean, ohatzean berotzeko eta hola?

- Bai, bai, hura izaten zuten, bai. Ohatzean berotzeko paratzen zuten maindireekin, eta gero egina zuten ogia egin eta redondoak egiten zituzten. Eta arto hura postura, forma bere-berekoak, ber-bera, bakarrik ogiak izaten zuen lebadura, eta artoak ez. Artoa gabea zen. Eta, artoa sartzen zen, azpian gaztaina hostoa paratu, eta gaztaina hosto haren gainean paratzen zuten artoa. Ogia ez, ogia hala-hala sartzen zen, eta bertzea, gaztaina hostoekin sartzen zen, gaztaina hostoaren gainean paratzen zuten, ra! hala-hala. Eta bo... nik ez dakit, denak batean, horixe ez naiz oroitzen ez nola... zenbat denboraz erretzen zen edo zer, begiratu egiten izanen zuten, segur aski ere, begiratzuz. Eta gero gainera han dena, haren ondotik sagar puskak sartu (...) eta hura aste gutzirako, astean behin egiten baitzen...

- Ogia.

- Ogia astean behin, izaten zen larunbatetan, jeneralean, iganderako ogi freskoa izateko...

Eta artoa egiten zen, berriz, gero, handia izaten baitzen, hola... lodia. Eta egiten zen ogia bezala xerraka egin, eta su ondoan iraltxi, osea... iraltxi erraten genion. Tente paratu, izaten zen su ondoan, lurreko sua, bueltan izaten zen holako aroko burdin bat, zangoekin eta egoten zena, eta haren kontra paratu tente, xerraka-xerraka. Eta suak egiten zuen gorri-gorri-gorri-gorri egin, eta arto txigorra erraten genion. Hura esnari bota...

2. Ura ekartzeko tresnak

- **Erref:** BRA-031/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:03:34. **Bukatu:** 00:05:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Hori, subila eta... nola da bertzea? Pedarra. Pedarra ez dut iku(si)... pedarrarekin oroitzen naiz ikuskaturik, iturria, hola, bestetarako edo, jendeak gero edaten eta, gero gainera ematen zen bestetan, joatean, boladu behar... boladuak izaten ziren holako zuri batzuk, azukrezko gauza batzuk, klaro, hori baso handi batean haiek sartu eta hura despedida izaten zen eta, hartako ur freskoa ekarri eta, hartan, hor... horretaz oroitzen naiz. Eta hor izaten zen, nik ez dakit, izena arraroa, arka, lehenago... hola, handia zen, armairu gisara, eta harat artoak-eta ogiak-eta altxatzeko. Eta, haren gainean, alturan, han baitzen tutu hartatik mugitu eta aise edaten baitzen, eta han kontzen zen hori.

- Eta zer diferentzia zegoen pedarra eta suilaren artean?

- Bueno, suila zurezkoa zen, hola, redondoa, behetik zabalago eta goiti meharra, kono edo... nola erranen diogu... Eta bertzea zen behetik hola, mehar-mehar-meharrean gero egina, eta hura gainera hori zen, lurrez edo... artzilla edo... horietatik, bai.

- Eta burutea erabiltzen zen suilaren azpian?

- Azpian bai, buruan, hura paratzen zen, holako ez dakit barrena zer izaten zuen, trapu zahar betea baldin bazuen ere, baina erdian hutsarekin, e! horrela, redondua bakarra horietan, eta gainera denak kolore diferenteak izanen zituen horrela hark, bai.

3. Argia nola egin gauez ibiltzeko

- **Erref:** BRA-031/003
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:05:09. **Bukatu:** 00:05:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Eta gero hura nik ikusi dut, han goitiko gizon bat fabrikara joaten zen, eta lasto hura lotu, edo... hola, fuerte, estu-estu, eta argitako, lastargia izaten zen. Argia egiteko ibiltzen zuen honaino bideraino etortzeko.

4. Belar zahar on

- **Erref:** BRA-031/004
- **Iraupena:** 0:00:14. **Hasi:** 00:05:24. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bai, belar zahar on, San Juan. San Juan eguneko... bedeinkazioa. Orain ere izaten da. Eta, Zalain zokon izaten da eta... etxez etxe ibiltzen omen dira: "Belar zahar on! Belar zahar on!" galdeka, lehenagoko zaharrak erretzeko.

5. Bizkar besta

- **Erref:** BRA-031/005
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bai, zerbait obra egiten zen denboran bizkar-besta egiten zen; afari bat edo ematen zen etxean aunitzetan, ez baziren obrero hola... mordo bat, ez? Eta bertze... bertzeen etxean baino orduko afariak, orain, ez zen..., kapritxo handirik gabe, ez zen entremesik eta horrelakorik izanen. Izaten zen zopa, garbantzua, gauza... hori; eta gero ba! zer? oilo zaharren bat... horrekin, arrozarekin edo egina, gisaz... gero postre zerbait eta pa! usatuak, denak kontent. Afari ederra.

6. Gorputza garbitzea

- **Erref:** BRA-031/006
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:06:18. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Ha! jendea garbitzen zen uda partean hagitz ongi, zertaz han garbitu labaderoan arropa eta garbia gelditzen zen, e! Eta soin zahar bat jantzi, edo galtza zahar batzuk jantzi eta... hala! Bai, egiten ginen freskatu eta gainera garbitu. Eta... bueno, horrela moldatzen zen jendea. Eta orain, etxe batzuek izanen ziren diferente eginen zutenak eta hobeki eginen zutenak eta (bueno), negu partean bada ura epeldu eta barreño batean hartu eta garbitu, baina ez egunero, e! gorputza, garbitzen ginen... e!
- Onbre, ez zen posible!
- Ez zen pos(iblea)... ez zen. Gainera, igual bederatzi... hamaikataraino bizitukatu gara etxean, eta zuk atera ezazu kontu, denentzat nondik garbitu behar genuen!

7. Arropa garbitzea. Bokata

- **Erref:** BRA-031/007
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bueno, zuek bokata jakin nahi duzue nola egiten zen? Bokata. Eta, zer izaten zen... arraska, beheitiko arraska ez zarete ohartu nolakoa den?

- Bai.

- Hori da lehenagoko arraska, lehenagoko fregadera. Eta, horretan paratzen zen... horretan egiten ziren hori... ontziak garbitu eta zerri bazka izaten zen tinakoa, zerri bazkarentzat. Tinakoa izaten zen barrika koskor bat bezala, bakarra... zabala, hiru... hankaren gainean. Eta, hartara botatzen ziren zerri bazkak gero hartatik egiteko, eta hura ere arraskan izaten zen.

Eta izaten zen pendarra, eta izaten zen suila. Horiek urarentzat, ur garbia... hartzeko.

Eta gero... egiten zen bokata, horretan. Eta bokata egiten zen hori... lixiba egosten zen pazia handi batzuetan... letoi horizko pazia handi batzuk izaten ziren eta... badira oraindik goitian ere, bakarra zulatuak eta... Eta haietan egiten zen hautsa. Hauts zuria gordetzen zen, horrena... sagar egurrarena, zuri-zuria izaten zelakoz. Eta gero hari xaboi koxkorak eta gauzak ematen zitzaizkion, eta bitartean bokata... bueno, maindireak-eta garbituak izaten ziren, denak garbi-garbi eginak eta xaboituak, eta haiek paratuak... horretan, kupelean paratuak izaten ziren denak, bat banaka. Eta gero izaten zen trapu zuri bat haien gainean, trapu zuri fin bat. Eta gero izaten zen hauts-zakua, zakuzko... hauts-zakua, hartan iragazteko. Eta botatzen zen harat... egosten zenean, hori dena egosten zenean, eta, hantxe garbi-garbi egiten ziren, zuri-zuriak gelditzen ziren. Eta etxe guztian barrena laino on batek korritzen zuen. Eta gero garbitu eta hedatu, izaten zen... hedatzeko tokia buru-bururainoko alanbrea... baratze izkinan, eta, izaten ziren hamar... hamabi maindire! Eta haiek denak idortzen zirenean, denak plegatzen ziren bi lagunen artean, eta bokata-saskia izaten zen, bokata-saski zabal bat. Oraindik... berriki samar hemen izaten zen, bi esku-txikirekin, eta honako... horiek bezala eginak, ondaskiak eta miaskiak eta horiek bezala eginak, bakarra zabalak, aztal zabalekin eginak izaten ziren, egurrezko, igual-igual gaztainazkoak. Eta hartan plegatu eta paratzen ziren, dena plega-plega eginak, eta haiek hurrengo bokata egin bitarteraino, hantxe gero... egoten ziren, zuri-zuriak, usaina dariela, erramu hori ematen zitzaien tartean.

- Eta errekan izaten zen harri bereziren bat, ez? Garbitzeko...

- Bokata-harria. Bokata-harri ederrak izaten genituen han, hemen eta hor ere bai, bertze ur horretan, ura azkarki izaten zen eta bokata-harri ederrak izaten ziren. Udan, presara sartu eta hantxe urean garbitzen ziren, eta neguan berriz izkinatik. Bokata-harriak izaten ziren.

- Eta ematen zen zerbait ere usain ona izateko? Arropari?

- Bai, erramu ematen genion, erramu... bai.

- Baina zer, horrela, hostoren... bat edo...?

- Bai, erramu adaska ematen zitzaion... paziari egostean.

(...) Hauts puska bat eman paziari, eta xaboiak ere bai denak xerratuak ematen zitzaizkion, xaboi koskor guztiak gorde, eta haiek xerratu eta eman. Eta, gero pazia hartan desegiten zen eta ura bota, ur hura. Aski bokata ederrak egiten ziren.

8. Etxea garbitzea

• **Erref:** BRA-031/008

• **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:12:06

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta lehen astamenda edo ez... ez zen...?
- A bai! hori... harekin egiten genuen garbitu, lehenago, e! Baina gero ja bada utzi genuen, zertaz gure ama zenak egiten zuen, hagitz eskoba politak egiten zituen, bueno eskobak, redondo-redonduak eta irauten zuten; gero hari sartu makil bat, punta zuena, zertaz behar zen, eta harekin garbitzen zen hagitz ongi. Ai, ona! hori! bai, eta zer erraten da?
- (Anaia): Ezpela!
- Ezpela, ez eskoba! Ai, eskoba da erdaraz eta euskaraz... ezpela, bueno, ezpela egiten genuen.
- Eta gero xaboia-eta erabiltzen zen garbitzeko edo... etxea garbitzeko?
- Zer?
- Xaboiaren bat edo?
- Xaboia? Ez, xaboia hori... horiek, horiek ez dute xaboi beharrik, bueno, tablak ez du xaboia beharrik, e! Behar da... behar da argi... argizaria eman, erosten genuen plazan, edo bertzenaz hari, erleak zituenak ere egiten zuen argizaria, eta hura e... zera virgen erraten genion, e! Eta, horrela egiten genuen.

9. Janzkera

- **Erref:** BRA-031/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:13:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Ez, soinak erosirik ez, etxean egin, zertaz nire... gu, orduan zen hemen ohitura, hori... joateko e... mojak, kolegioa, bazen... eskola bat, eskola zen, baina bazen... bertze bat erakusten zizutena Corte y confección. Eta... eta egiten zenuen, han ikasten zenuen pixka bat eta han hori, baina gure... nire bi ahizpa zaharrenak-eta ba! poliki egiten zuten josi, (bai), galtzak eta atorrak gizonarenak eta... guretzat, zertaz orduan gainera hasi sostenetik hasi eta braga dena, dena etxean egin behar zen, e!
- A ba! eta bragak nola?
- Oi! telazkoak! A seguro! (ai ei!) Gure denboran bada gu horrela bizitu gara! Eta...
- Eta sujetadoreak ere horrela?
- Eta sujetadoreak ere...
- Telarekin?
- Telarekin egiten genituen, bai, bai.
- Joe, ze artistak!
- Beharko, ez zen... ez zen saltzekorik. Eta haur bat jaio behar baldin bazen, jaiotzeko zelarrik, bada egin behar zenituen ator txiki-txikiak, eta kamiseta... -ez dakit kamiseta, ez naiz oroitzen, akaso bazen saltzeko, ez dakit- eta dena, dena erosi egiten zen. Dena erosi ez, dena etxean egin, ez, tela erosi.

- Tela erosi, ez?
- Tela erosi. Eta tela izaten genuen eta... eta pañueloak poltsakoak, bai, etxean egin bainika eta... egiten genituen.

10. Adin batetik goiti beltzez

- **Erref:** BRA-031/010
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:14:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- A! gu ez, gu ez gara hala ibili, baina gure aitzinekoak, gure izeba bat, izeba bagenuen etxean soltera, eta... ama zena eta beti beltz-beltz-beltzaz jantziak ibili ziren, beti. Eta, eta gu, bada... lutoa, nik hogeita hiru urte nituelarik aita hil zen eta... bi urte, beltz-beltz-beltz-beltzaz. Eta gainera urte batez mantu bat, bueno mantua, hori... paratu hor eta hor eskimel batekin, eta... honela hartu eta elizara joaten ginen, egunero elizara, hori... urte... bi urtez joaten ginen, baina urte bat mantuarekin, e! Ja gero mantelina.
- Hori etxeko emakume guztiak? edo...
- Ez, ez, ez, bat, bat joaten zen elizara; bat joaten zen mantuarekin, e! bat.

11. Ogia

- **Erref:** BRA-031/011
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:14:27. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Maira izaten zen, maira. Eta halako... makil leun bat, hartan irristatzeko... galbahea irristatzeko. Eta, hori egiten zenean, egin orantza han. Ekartzen genuen legamia, orantza erraten diote zenbait tokitan, legamia ekartzen genuen eta harekin masa egin, eta lo egiten paratu, harrotu bitartean. Eta gero paratu ogiak, holako taula espres bat izaten zen bere maindire harizkoekin, hartan paratu, ogiak paratu bat banaka, eta, ematen zioten arrautza ginetik... bai, bai, presumituak izaten ziren, bai, hori izateko... kolore ona izateko, arrautza pixka batekin pasatzen zuten. Eta haiek labea sartu, labea bitartean berotua eduki, arbaztekin berotzen zen. Otatza hoberena. Otatza eta gero, ura garbi-garbi egin eta hartan sartu bat banaka. Izaten zen urkila, horiek sartzeko.
- Urkila zer da?
- Urkila... holako... hori bat. Lehenbiziko pala handi batekin sartzen zuten, eta gero ateratzeko urkila. Urkila da...
- Ze bi mutur... horrela, bi...
- Bi punta dituen?
- Bi punta?
- Ez, ez, leuna izaten da, pala bat bezala baina bikoa. Hura... burdinazkoa

izaten da. Harekin hartu eta ogiak ateratzen ziren.
Eta klaro, haren ondotik aunitzetan sagarrak sartzen genituen. Onak izaten dira sagarrak erretzeko.

12. Bastida baserria

- **Erref:** BRA-031/012
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:17:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bastida baserrian e... ematen zioten eskatzaileari, eskatzaile erraten genion, eta ematen zioten hori... lo egiteko tokia, behin heian, eta... eta arratsetan, arratsetan ematen zioten hori, eltzaria, eta goizetan desaiunoa, bueno, kafesnea edo esne hutsa edo nik ez dakit zer emanen zioten, baina ematen zioten. Eta... eta juntatzen ziren baina aunitz, e! Ez zen behin ere okasiorik izan, zertaz fidatu behar duzu, ez? e hori... bakoitza bere lekuko jendea etortzen zen, eta, batzuk hagitz ezagunak genituen, baina bertze batzuk ez, eta... Ez, ez, egiten zuten lan izugarria egiten zuten. Eta han ijito batzuk ere egon ziren, egunak hor pasatu zituzten; eta azpiko aldean bazuten holako etxe txiki bat eta hartan egon ziren, eta, ez, ez, izugarrizko hori ziren, ospedajea ematen zutenak, bueno!

13. Hortza erortzean...

- **Erref:** BRA-031/013
- **Iraupena:** 0:00:04. **Hasi:** 00:17:06. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Xagu xarra
To ortza xarra
Ekarra(k) berriya!

14. Onddoak ikusiz gero ez dira gehiago handitzen

- **Erref:** BRA-031/014
- **Iraupena:** 0:00:13. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bakarra aditu izan dugu, onddo txiki bat, onddo txiki bat ikusi, hura ikusi eta hura ez zela handitzen, holako errate batzuk; onddo txiki bat ikusi,

horrela, txikia, koskorra horrela: “Utzi behar diat biharko”, hura ez zela handitzen erran, frogarik ez dut nik.

15. Kontrabandisten trukoak

- **Erref:** BRA-031/015
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:18:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Truko bat hori zen, makila behar zen beti berdea, hark lurrean harria jota egiten zuen kaxk! Kaxk! Baina idorrak egiten du klask! Eta... “Oi! Hori ez zen kontrabandista!”, sumatuz gero karabineroak izanen zirela nonbait ere, horrela zihoazenak eta hori, beti berdea, lehengo zaharren kontsejua. Eta horretatik aparte, lehengo zaharrek erranen zuten: “Kasu, e! Ez hor bertzeak baino gehiago dirurik eta agertzen ari, e! Begira zeuden buruak agertzeko. Besta gutxi egin!”. Eta hola, hala da. (...)
Erraten zuten: “Ba! begira, jenderik ez pasatu, jenderik ez hartu pasatzeko, jendeak solas egiten dik, behiak eta paketak, haiek ez ditek egiten”.

16. Kontrabandoa eta estraperloa

- **Erref:** BRA-031/016
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:18:24. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, estraperlo deitzen genion hemen bertan egiten zen negozioa zen hori, bertako jendeak. Porejenplo, arestian erran dugun tren horretan etortzen ziren emakumeak. Handik ekarriko zuten, Gipuzkoatik Nafarroara igual arraina edo zerbait ere, eta hemendik e... harrapatzen baldin bazuten eramane zuten jateko zera... gauza: edo arrautza, edo ilar, edo arto... batekin bertze. Eta horiek ez zuten libre hori egitea, guardia zibilak ibiltzen ziren trenean, baina inongo martingala guztiak bazituzten, gona handiak hartu, eta horien azpian eta... eta horiei deitzen genien guk estraperlistak. Horiek emakumeak joaten ziren jeneralean.
- A, bai, e!
- Horretarako erneagoa da emakumea gizona baino, bai, bai. Eta horiek, pues, trena pagatu beharko zuten ederki, baina, trena pagatu eta denetarako ateratzen zuten. Pentsa ezazu, esnea hemendik Gipuzkoara eramaten zen, hemen bilduta, eta hogeita hamar litroko esne ontziak trenean, hemen bildu, eta trenean eramane. Eta, gero, esne ontziak ongi garbitu eta ekartzen zuten jeneroa handik, kontrabandoan, esne ontziak hutsak helduko balira bezala trenean, eta ekartzen zuten kafea. Kafea orduan kontrabando zen, Frantziara eramaten genuen, gero gauaz Frantziara eramane. Frantziatik bertze zerbait ekarri. Frantziatik: kubiartak... nahiz kubiarta gutxi aski zen orduan, baina kamioiak eta kotxe bat edo

bertze edo... puntillak, arestian leitu duzue zuek kobrea, kobrea eta latoia, txatarrak, alemanek Frantzian botata gerra denboran zerak... bonbak, tak... haiekin kapsulak, latoiak edo kobreak, hori kontrabandoan ekartzen zen gauzez, Espainiara. Zer gauza, e!

- A, bai, e!

- Gaiztoa bizkarrerako... dena punta zorrotzak eta sendorra.

- Eta pisatuko zuen ere bai, edo...?

- Bai... horixe, gaiztoa. Behi larrua, bertzea kontrabandoan ibiltzen zena. Hori ere gaiztoa, usain bat... gordina, behiak hil eta... behiak hil eta gero, eta haiekin paketeak eginak. Hori ere hagitz gaiztoa zen bizkarrerako. Kubiarta ere ez zen ona izaten, zergatik zenbaitetan kubiarta handiak eta horrela bizkarrean gaiztoa izaten zen. Eltzetzoen beldur.

- Beti...

- Arestian erran dizut korsetekin zer istiluak ikusi ziren hemen... pentsa ezazu, ni oroitzen naiz hemen... hemen gizonak ari ziren lanean fabrika horretan, eta eguerdian, eguerdiko bazkaltzeko denboran hamabietatik ordu batera bazkaltzen zuten, eta orduan bazkaltzeko eramaten zitzaienten, hemen mutiko koskorrek, bazkaria. Eta, mutiko koskor batek eramaten zion bazkaria gizon bati, eta gizon hura egin zen noizbait ere kexatu bere etxean, berek ez zuten mutikorik, eta bertze etxeak eramaten zion, eta egin zen kexatu gizon hori etxera etorrita:

- Ongi ogi gutxi bidali didazue gaur bazkaltzeko.

Bueno.

- Guk beti bezala bidali dizugu ogia -erran zioten etxean.

Eta:

- Niri gutxi ailegatu zait.

Eta, bai, mutikoak ere zer izanzen zuen gosea, eta malezia txikia. Eta, berriz ere egin izanzen zion pikardia hori, eta berriz ere kexatu gizona. Bueno, oraingoan pentsatu zuen emakume horrek zer egin. Bueno, guardia egin behar ziola. Eta hemen... hemendik orain den bide hori ez zen orain bezala, estrata handi bat zen orduan. Eta hor... hor barrena mutikoak nonbait ere hor egiten zuen azioa, nabala eraman eta kentzen zion. Eta egin zuen emakume horrek harrapatu. Pentsa ezazu zertaraino obligatua zen jendea. Goseak. Ba... bai.

Errana badago: Es má(s) listo que... que el hambre erraten zaio ernea denari, eta egia da hori. Goseak gauza aunitz eraginarazten ditu.

17. Gerrako miseria

- **Erref:** BRA-031/017
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:23:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Goizean zazpitan irekitzen zen karnizeria. Oliorik ez zen, eta karnizerian behia noiz hil zen enteratzen zen eta behiaren seboa kontsegitzeko goizean bostetarako kolara joanak karnizeria batera. Seboa oliotarako ibili.
- Olioak arras garesti, ez?
- Eta hura pagatu behar zenuen, hark agintzen zuena, karnizeroak. Baina gero ibili behar zenuen hagitz erne harekin jan behar bazenuen, ez bazenuen hagitz beroa, gelditzen zizaitzun hemen atxikita, hotz...zen

baldin bazen pixka bat, seboa hozten baita, eta gogortzen baita. Pues...
pues hura egin behar zenuen pixka bat hozten bazen, berriz berotu behar
zenuen jateko. Baina nola ez zen oliorik...

18. Heriotzaren berri nola eman

- **Erref:** BRA-031/018
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:23:54. **Bukatu:** 00:25:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hasiko gara hiltzetik; bueno, hiltzen da eta joaten zinen auzoko lehenbiziko etxera, eta erraten zenuen "hil zaigu" eta hura joaten zen eta jotzen zen agonia. Eta agonia jo eta orduan ba abisatzen tz... genituen oinez, e! zertaz ez zen beikulorik eta deus, eta oinez abisatzen genuen auzoa eta... (hori). Gero, hori, auzotik etortzen ziren hori, bi neskaxa eta e... ibiltzen ziren pariente guztiak hori, e... abisatzen; bertze auzoak eta pariente guztiak, pasatzen zenuen orduz eta... Eta ematen zizuten gero, etortzen zinelarik bada ematen zitzaien bazkaria edo zerbait neska haiei. Gero arratsa ailegatzen zen eta gaubeila egiten zen, eta Arrosarioa errezatu eta Arrosarioa errezatu eta Arrosarioa errezatu, eta gero, bada... goizeko bostetan edo horrela, hamabietan edo horrela ematen zen hori... afaria, eta goizeko bostetan edo seietan edo horrela ematen zen txokolatea, eta... ja etxera. Eta gu baino lehenagokoak, bada orduan kaxa, eta joaten zinen hori... hemen Teodosiok egiten zituen, kaxak egiten zituen, egin egiten zituen berak, eta neskaxak gaubeilan egin behar zuten hura forratu beltzaz, lana zen, e! Eta... baina gu, nire denborakoz ja hori ez zen, ja ekartzen zituzten kaxak eginak, eta prezio diferen... desberdinetakoak eta bueno, horrela, egiten zen.

19. Hildakoa non kontzen zen

- **Erref:** BRA-031/019
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:25:28. **Bukatu:** 00:27:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Hori, hemen, bueno... ai! zer etxean erraten duzu? Hori, salan hemen. Mahai baten gainean paratzen zen edo... banketa batzuetan gainean paratzen da, eta... etxean. Eta orain ere bai, bada tanatorioa baina oraindik etxeetan hori... egiten da.

- Eta paratzen zitzaion horrela, kandelaren bat, ez?

- A! bai, bai, kandela, hori, bedeinkatua, hori... Kandelero egunean bedeinkatutako kandela, bat edo bi edo baldin bazenituen, bada haiek paratzen ziren, haiek bizturik paratzen ziren.

- Eta hil kutxa eramaten zuten barrideek, ez? bueno... edo auzokoek.

- Auzokoek bai. Auzoko mutilek eramaten zuten, eta gero haiei ematen

zitzaian afari bat. Eta monagilloa... oi! monagilloak, hori... sei kandel... mutikoak eramaten zituzten aitzinean eta haiei ematen zitzaien saria, bueno... zu... zuri iruditzen zitzaizuna edo zuri... zuk nahi zenuena ematen zitzaien.

- Eta Beran eta Etxalarren diferentea da, ez?

- Bai, bai, hori, Bera eta Etxalar diferentea da, e... ze hemen solteroek eramaten zuten, eta han soltera hiltzen baldin bazen, ezkonduak eraman, eta ezkondua hiltzen baldin bazen, solteroek.

- Eta ofrendak egiten zenituzten?

- Eta ofrendak bai, hori... joaten ginen elizara eta... apeza ere, joaten zen apeza eta monagilloa, hori, zaku batekin, eta ematen genuen olata erraten genion, olata zen holako... hori, ogi txiki bat, polita, e! Eta harat botatzen zenuen, eta... eta sosa, bandejara. Sosa, seguru orduan zentimoak ziren, e! sosa esaten genion.

- A! eta gero, norbait hiltzen zenean etxe batean bi urtez hori...

- Be... beltzaz.

- Bai, eta bi urtez elizara familiako norbait, ez?

- Bai, bai, bai. E hori... eta ez baldin bazinen zu posible joatea, bada paratzen zenuen ordezkua, eta ordezeko hari pagatzen zenion. Eta baziren emakumeak bada horretara dedikat... dedikatzen zirenak, zertaz ez zuten bertze etorkirik eta... bueno, edo pixka bat laguntzeko edo... zutenari, zuten irabaziari, erranen dugu.

20. Portulan laminekin pasatutakoa

- **Erref:** BRA-031/020
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:28:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Lamixeneko erreka hemen dugu, hemendik beheiti berehala erreka, eta orain nahiz izena mudatu omen diote, bai, orain hor ja paratzen diote Zia, Zia erreka, dena, ez dakit zerengatik. La... laminak omen ziren hor, eta Portula da hor baserria, lehenbizikoa, eta, han, egun bat amaj... ama... amagarroari erran omen zion erreginak:

- Ama, iruditzen zait haur hau trukatu digutela.

- Bai! Holakorik...

Eta:

- Bai, bai, hau... hau ez da, ez da gure umea.

Eta:

- Bai, hori ai... aise ikusiko dinagu.

Hirurehun arrautza paratu su ondoan, eta, lamina izaki hura eta, sehaskatik burua altxatu eta:

- Baditut hirurehun urte eta ez dut behin ere horrenbertze eltze txiki ikusi su ondoan -erran omen zuen.

Eta orduan bertzeak horrekin, ezpelarekin joka hilko zutela eta bueno, ez, ez, barkatzeko eta haurra ekarri... haurra ekarri eta paz y bien. Kue... kuentua da hori.

- Eta laminak nolakoak ziren?

- Ez dakit, txikiak eta... horrela omen ziren.

21. Erraldoia

- **Erref:** BRA-031/021
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:28:53. **Bukatu:** 00:29:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, gigantea omen zen bat eta zango bat Talun (?) gainean eta bertzea Aikerdin paratu eta, Berako fabrikako presan ura edaten omen zuen.
- Bidasoatik.
- Bidasoatik. Eta, beratarrekin horrela zerbait haserretzen zenean, ura hartzen omen zuen eta denbora ederra zuelarik brrrra! botatzen omen zien dena, gero, lan guztiak eta denak busti, belar eta gainerakoak.

22. Lehen animaliek, landareek... solas egin

- **Erref:** BRA-031/022
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:29:18. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Denak solastatzen omen ziren. Hori, "Ez, horrek jan... Ez, ez ni jan, ez, jan ezazu... jan ezazu hori", bata bertzeari horrela aritzen zirela. Eta goroldioa zela solasik egiten ez zuena, lurrean beti zanpatua zelako. Baina, igan zela haritz gainera, eta erran ziola, a... handik oihu egin zuela:
- Ni naiz nor nire buru.
Haritz gainetik... haritz gaineke... goroldioak oihu eginkatu zuela. Beti zangopean ibiltzen zituztela eta haiek ez zutela deusetarako deretxorik. Eta hura, haritz gainetik hark oihu eginkatu zuela.

23. Ilargiaren eragina

- **Erref:** BRA-031/023
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:30:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Konparazio batera, gauza bat, belarra pilatzeko beherapena, ilargi behera; iratzea egiteko gorapena, bueno, fede handia du jendeak, e! Fede handia du jendeak, e! Fede handia du jendeak! Eta, etxean zerria hiltzeko beherapena izaten zen, etxean zerria hiltzeko beherapena izaten zen, eta horrela baziren. E konparazio batera a... arbola bat botatzeko, materialetarako, haritza botatzeko beherapena da; hosto hozkatua erraten dute, eta hosto handia duena, honako gaztaina eta horiek izanen dira

aldrebes ez, horiek uste dut e... e akazia eta horiek gorapena, gorapena. Haritza eta gaztaina eta horiek dira beherapenarekin –erraten zuten zaharrek-, eta akazia eta horiek gorapenarekin, hosto biribila, hosto biribila deitzen zaio.

24. Eguraldia nola asmatu

- **Erref:** BRA-031/024
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:32:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Ardiak darda... beren burua dar-dar-dar-dar-dar egiten zutenean, joal... joalduna behar zuen sumatzeko, ez? Eta etorri ona eta, to! denbora mudantza, ardiak dardaran ari dira.

Eta, mendia, Larrun, guk hori dugulako hur... horrela, karaz kara, egun batzuetatik bertzera hurbilago ikusten da, eta, gero erraten dute haize hegoa edo euria. Bai, horiek horrela; ez dakit hala aterako zen beti baina... bueno, e... horrela erraten zen, ez?

- Bai. Eta kedarrarekin.... eta....

- A! baita ere. Kedarra eroriz gero ere bai, kedarra... hori, egin... eginez gero gainbehera etorri, bai euria, hiru egun edo lau egun barrenean euria. Eta, ilargiari aroa horrela egiten zaio la... lainoarekin, bueno, eta, orduan ere seguru, euria. Bai, konparazio batera gaur begiratuko zaio, gaur mudantza badu, eta ea egiten duen goibel-goibel etortzen zaionean, egiten dute batzuetan handiagoa eta... bertzetan txikiagoa gelditzen zaio. Behin ikusi dut aitzin horretan, eta erran nion: “Horra! lehengo errana lau-bortz egunen buruan euria” eta, egin zuen, egin zuen.

- Eta gero, txorien... arabera ere jakin daiteke, ez? goitirago edo egin... hegan egiten badute edo...

- Bueno, bai, begira, denbora ederra baldin bada, eta, hori, honako erlatxa eta enara eta horiek goitiago ibiltzen dira, eta euria denean, berriz, eulia zolan, zolan, bai, eulia beheiti jaisten izanen da.

25. Euriaren kanta

- **Erref:** BRA-031/025
- **Iraupena:** 0:00:06. **Hasi:** 00:32:37. **Bukatu:** 00:32:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Euria! Euria!
Aingeru buru zuria
Gizon bizar zuria
Euria!

26. Haur txikiei...

- **Erref:** BRA-031/026
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:32:43. **Bukatu:** 00:33:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Honek kapelu bat arrautza ekarri
Honek frijitu
Honek gatza eman
Honek probatu
Eta honek dena jan.

Buruan jo eta, hori, asmatu ea zer... zer jan zuen.

“Arre arre mandoko
Bihar Iruñerako
Handik zer ekarriko?
Mando bat kukuso
Horiek norentzat?
Lehenbiziko, lehenbiziko
Irri egiten duenarentzat!”

Irri egiten baldin bazenuen, bada zuretzat.

27. Txori kentzailea

- **Erref:** BRA-031/027
- **Iraupena:** 0:00:14. **Hasi:** 00:33:15. **Bukatu:** 00:33:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Txori kentzaile bat izaten zen, kredo aldrebes erreztatuta kentzen zuena.
Goizetan baraurik etorri, eta kredo azpitik goiti erreztatuz sendatzen zituenak.

28. Kolpe belarra

- **Erref:** BRA-031/028
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:33:29. **Bukatu:** 00:33:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Kolpe-belarra da hori, baldin baduzu konjestioa edo katarro bat fuertea edo

buruko minarentzat ere erraten dute ibiltzen dutela, hura egiten da xehatu, bueno, haren hostoak xehatu-xehatu-xehatu egin, eta ematen diozu arrautza zuringoa. Egiten duzu batitu, eta paratzen duzu bi trapuren tartean eta paratzen duzu. Eta zangoa iraultzen baldin bazaizu, esgintze bat edo zango iraulia, bada egiten duzu hura paratu, eta egiten du... be... bere bentajak egiten ditu, e!

29. Lapaitz hostoa

- **Erref:** BRA-031/029
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:33:59. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hoho! Lapaitz-hostoa sartzen baldin baduzu... hori, iltze bat, edo egiten baldin baduzu... alanbre batekin... zertaz alanbrearen ebakiak-eta txarrak dira hagitz, bada paratzen dituzu bi edo hiru hosto eta lotzen duzu. Eta, hori, alimaleko sukarra hartzen du, bueno, alimaleko berotasuna, bada berriz berritu, bertze hostoa paratu eta... eta sendatzen da, baina hagitz agudo edo... egiten da ondu, e!

30. Kalitxen kontra

- **Erref:** BRA-031/030
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:35:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- A! kalitxaren kontra... kalitxaren kontra, ba honek... honek daki hobeki, nabaritzen da.
- Ba, zuk baita ere!
- Gorostiaren hostoarekin egiten da. Gorostiaren hostoa... bada gordetzen da, eta... horiek hori, ja pasatu behar duzu... eta hori, urik inon pasatu gabe, gorosti hostoak hartu, eta gorosti hostoa e... ekarri behar duzu, eta pasatu behar duzu urik ez pas... pasatu gabe etorri behar duzu etxera.
- Eta gero txopo hostoa ere bai, ez?
- Eta txopo hostoa gorde egiten da, eta... eta ja, honenbertze egunen buruan ja... egiten du...
- Baina txopo hosto horrekin igurtzi behar da nonbait edo hartu eta gorde eta listo?
- Ez; ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez! hartu eta gorde, hartu eta gorde txopo hostoa.
- Eta zenbat gorde behar dira?
- Bueno, igual adaxka bat edo delakoa, ez?

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com